



EIBARKO XXI. PINTXO LEHIAKETA

Arrate Kultur Elkartea (AKE) Eibarko XXI. Pintxo Lehiaketa antolatu du, **Merkataritza Gune Irekia (MGI), Eibarko Udala eta Eibarko Ostalarien** laguntzarekin.

- Taberna edo ostalaritza etxe bakoitzak **“pintxo” bat** aurkeztu dezake, eta **izen batez identifikatuta** egon beharko da.
- **Lehiaketa 2025eko URRIAREN 29 eta 30ean izango da:** asteazkena eta osteguna, hurrenez hurren.
- Lehiaketara aurkeztu diren pintxoek, egunean zehar lokaleko barran ikusgai egoteaz gain, **bezeroen kontsumorako prest** egon beharko dute.
- **Pintxoaren prezioa** 2,5€ eta 3€ artekoa izan beharko da.

Epaimahaia Arrate Kultur Elkartea izendatutako lagunek osatuko dute. Aurrez abisatuko da noiz pasako diren taberna bakoitzetik. Pintxo probatzerik ez balute, taberna lehiaketatik kanpo geldituko da automatikoki.

Emango diren SARIAK hauek izango dira:

- **Pintxo onenari saria** (200€, diploma Arrate Kultur Elkartea eta garaikurra Udalaren eskutik, “Bakailoaren txapeldunen txapelduna” eta “Debabarrenako txapelduna” bakailao pintxoaren txapelketetan eibarko ordezkari gisa parte hartzeko pasea, Bacalaos Alkortaren eskutik)
- **Bertako produktua hobekien erabiltzen duenari saria** (200€ Udala eta diploma AKERen eskutik).
- **Publikoaren saria** (200€ MGI eta diploma AKERen eskutik). Sari hau aukeratzeko kutxa bat eta boto-paperak banatuko ditugu tabernetan bezeroek beraien puntuazioa eman eta zozketan parte hartu ahal izateko, izen-abizen eta telefonoak utz ditzaten. **Urriaren 31an** pasako gara **kutxen bila**. Kontaketa, urriaren 31an arratsaldean burutuko da Arrate Kultur Elkarteko lokaletan, bertaratu nahi duen edozeinentzat modu publiko eta irekian.

IRABAZLEEN BERRI URRIAREN 31an (arratsalde-iluntzean) emango da Arrate Kultur Elkarteko lokaletan zein, komunikabideen bidez. Irabazleei telefono bidez jakinaraziko zaie egun berean. **SARI BANAKETA San Andres azokan burutuko da azaroaren 30ean.**

PARTE HARTZAILEEN ZERRENDAREN ZABALPENA egiteko konpromisoa hartzen dugu euskarri desberdinen bidez (prentsa-ohar, diptiko, kartel, Facebook...). Merkataritza Gune Irekiarekin (MGI) diptikoa argitaratuko dugu eta bertan agertuko da **pintxoaren izena, osagaiak** eta aurkeztuko duzuen **pintxoaren argazkia**.

LEHIAKETAN PARTE HARTU NAHI DUENAK izena eman beharko du **URRIAREN 15a baino lehen**. Datu guztiak (argazkia barne) arratekultu@gmail.com helbidera edo whatsapppez 638284912 bidali beharko dira data horretan, inprentarako.

HARREMANETARAKO bideak:

- Arrate Kultur Elkarteko **bulegoan**
- **638 284 912 telefonoan**.
- **Emaillez:** arratekultu@gmail.com helbidean.

Lehiaketaren edo elkarteak burutu ahal duen beste edozein ekintzaren gaineko proposamenik bazenute guregana jo.

IZEN EMATE ORRIA (helarazi beharreko datuak)	
TABERNAREN IZENA	
KONTAKTURAKO ARDURADUNA/TELEFONOA	
PINTXOAREN IZENA	
OSAGIAK/ DESKRIBAPENA	
PINTXOAREN ARGAZKIA	
Pintxoaren argazkia ateratzera Arrate Kultur Elkarteko kiderik bertaratzea nahiko zenuke?	

ANIMATU ETA PARTE HARTU!!!!